


IKASGAIAREN PROGRAMA/ I



Ikasgaiaren programa  
**EUSKARA ETA LITERATURA I**



IBAIZABAL IKASTOLA

2024-25

1BTX

## 0. ZER DA DOKUMENTU HAU?

Dokumentu honetan Euskara eta Literatura ikasgaiaren urteko plangintza azaltzen da. Bertan ikus daitezke:

1. *Ikasgaiaren bidez lortu nahi diren HELBURUAK.*
2. *Ikasturtean zehar landuko diren EDUKIAK, eta eduki bakoitza ikasturteko zein momentutan landuko den.*
3. *Ikasgaia lantzeko erabiliko den METODOLOGIA; hau da, ikasleek jakintzak eskuratu, praktikan jarri eta integratzeko erabiliko den modua.*
4. *Ikaslearen lana eta jarrera nola EBALUATUKO den; hau da, irakasleak nola baloratuko duen ikasleak bere jakintzak eta konpetentziak jaso dituela.*
5. *Ikaslearen nota eraikitzeke KALIFIKAZIO SISTEMA; hau da, ikasturtean zehar ikasle bakoitzaren nota nola eraikiko den (hitzorduak eta jarduerak).*

Ikasgaiaren nondik norako nagusiak jasotzen dituen dokumentua da hau, beraz. Ikaslearen lana bikaina izateko bidea zein den azaltzen da bertan. Ikaslearen **betebeharra** da, ondorioz, programazio hau ezagutzea eta bertan azaltzen denaren arabera lan egitea.

Era berean, ikasle moduan zuen **eskubideak** ezagutzeko eta ikasturtean zehar horren arabera nota ona eraikitzen joateko aukerak baliatzeko jarraibideak topatuko dituzu.

Garrantzitsua da kontuan hartzea emaitza bikainak **eguneroko lanaren** bidez ateratzen direla. Nota hobetzen joateko aukera ziurtatuta daukazue ebaluazio guztietan, baina, era berean, egunerokoan **jarrera egokia** izatea, **ekina izatea**, **kritikotasunez eta autonomiaz jokatzera**, eta ahal den heinean, **ikasgaiaz disfrutatzea** ezinbesteko bidelagunak izango dira ikasturtea arrakastaz amaitzeko.

Beraz, ikasgaiaren egitura eta funtzionamenduaren inguruan izan ditzakezun **zalantzen erantzun nagusiak** dokumentu honetan aurkituko dituzu.

## 1. IKASGAIAREN HELBURUAK

**H1.** Hainbat testuingurutako **ahozko diskurtsoak eta diskurtso idatziak ulertzea**, informazio orokorra zein espezifikoa identifikatuz, interpretatuz eta adieraziz.

**H2.** **Ahoz eta idatziz, diskurtso koherenteak, zuzenak eta egokiak sortzea**, hizkuntzen osagai diskurtsiboen inguruan hausnartuz eta hizkuntza-arauak landuz eta aplikatuz, hainbat egoera komunikatibotara egokitzen jakiteko, arlo akademikoan bereziki.

**H3.** **Euskal literatura-lan garrantzitsuenak interpretatzea**, egile eta lanik garrantzitsuenak ezagutuz eta historian zehar euskarak eta Euskal Herriak izan dituen testuinguruak aztertuz.

**H4.** **Euskararen egungo egoera ezagutzea eta euskararen erabilereko portaera asertiboak hartzea**, hizkuntzen arteko erlazioak deskribatuz, soziolinguistika ezagutzak aplikatuz, ikastolako ekintza komunikatiboetan euskaraz hitz eginez, eta euskararekin loturiko ekintzetan parte hartuz.

## 2. IKASGAIAREN EDUKIAK

### 1. SOZIOLINGUISTIKA

1. BLOKEA > Soziolinguistikaren oinarriak
2. BLOKEA > Euskararen tamaina eta garrantzia
3. BLOKEA > Erabilera esparruak
4. BLOKEA > Dialektologia

### 2. LITERATURAREN HISTORIA

1. BLOKEA > XVI.-XVII. mendeetako literatura
2. BLOKEA > XVIII. mendeko literatura
3. BLOKEA > XIX. mendeko literatura

### 3. GRAMATIKA, LEXIKOA ETA ZUZENTASUNA

1. BLOKEA > Perpaus bakuna eta haren osagaiak
2. BLOKEA > Perpaus elkartuak
3. BLOKEA > Lexikoa: hitz motak eta haien osaera
4. BLOKEA > Ortografia eta puntuazioa

### 4. TESTU LANKETA

1. BLOKEA > *Irakurrizu* aldizkaria

### 5. TESTU ULERMENA

1. BLOKEA > Hainbat esparrutako testuen ulermena (C1 azterketa)
2. BLOKEA > Aukerako irakurgaiak

Ikasgai honetako edukien gutxi gora-beherako banaketa hurrengoa da:

EDUKIAK		1.ebaluazioa	2.ebaluazioa	3.ebaluazioa
1. SOZIOLOGIA	1.1			
	1.2			
	1.3			
	1.4			
2. LITERATURAREN HISTORIA	2.1			
	2.2			
	2.3			
3. GRAMATIKA, LEXIKOA ETA ZUZENTASUNA	3.1			
	3.2			
	3.3			
	3.4			
4. TESTU LANKETA	4.1		*	*
5. TESTU ULERMENA	5.1			
	5.2			

\* Testu lanketa integrazio-jardueraren bidez egingo dugu. Integrazio jarduera 2. ebaluazioan edo 3. ebaluazioan egin daiteke, ikastaldearen arabera.

### 3. IKASGAIAREN METODOLOGIA

Lanerako metodologiari dagokionez, hiru eratako lanketak izango dira nagusiki:

#### JAKINTZAK ESKURATZEKO SAIOAK

Irakasleak gidatutako saioak izango dira, eta horietan, edukiak landuko dira. Saio hauetarako, ikasleen parte-hartze aktiboa ere beharrezkoa izango da.

## JAKINTZAK PRAKTIKAN JARTZEKO SAIOAK

Trebatzeko saioak izango dira, ikasle bakoitzak modu autonomoan lan eginda eta irakaslearen laguntzarekin. Saio hauek, aurretik eskuratutako jakintzak mobilizatuta, ariketak osatzera bideratuta egongo dira.

## INTEGRAZIO JARDUERA

Binaka edo talde txikian, hainbat zeregin gauzatu beharko dira, ikasgaiaren edukiak erlazionatu eta testuen sorkuntza lantzeko. Azken ekoizpena aldizkari bateko testua izango da.

## 4. EBALUAZIOA

Ikasleak ebaluatzeko eta ikasgaiaren helburuak lortu direla ziurtatzeko, kalifikatzeko bi modu nagusi egongo dira:

### AZTERKETAK / KONTROLAK

Azterketen eta kontrolen bitartez, edukiak eta hauen erabilera egokiarekin erlazionatutako kompetentziak (helburuak) ebaluatuko dira. Eduki eta kontzeptu teorikoen ulermena eta azalpena baloratuko da, bai eta azalpen horietan erabilitako erregistroa ere. Horrez gain, ariketak egoki betetzea baloratuko da.

Ikasgaiko helburuak ardatz hartuta, azterketen balorazioa azterketa ebatziaren bitartez egingo da, eta ikasleek aurretiaz jakingo dute ariketa bakoitza nola baloratuko den.

### INTEGRAZIO JARDUERA

Integrazio jardueraren bitartez, edukiak osatzeko aukera egongo da. Egin beharreko lanaren arabera moldatuko dira ebaluazio-irizpideak eta integrazio jardueraren azalpenarekin batera jasoko dira dagozkion ebaluazio-irizpideen deskribapena.

### GELAKO JARDUNA

Gelako jarduna ondorengo irizpideen arabera ebaluatuko da:

1. Euskara: euskaraz bizitzeko eta hitz egiteko hautua egitea.
2. Parte-hartzea:
  - a. Jarrera pro-aktiboa izatea: ikasteko nahia eta gogoia. Jarrera positiboa izatea, ulertzen ez dena galdetuz. Mugikorrik ez izatea, inguruko ikaskideak ez oztopatzea...
  - b. Errespetuz parte hartzea: neuriz eta errespetuz parte hartzea eta azalpenak ez etetea. Apunteak izatea mahai gainean eta ez beste lan edo ikasgai batekoak.

- c. Entzuten jakitea: irakaslearen azalpenak, ikaskideen ekarpenak arretaz entzutea, gorputz lengoia eta jarrera zainduz.
3. Elkarlana eta elkarbizitza:
- a. Barne arautegiko eta elkarbizitzako arauak errespetatzea.
  - b. Ingurukoak laguntzea.
4. Autonomia:
- a. Asistentzia: ikasgaian justifikatu gabeko 5 hutsegite baino gutxiago behar dira azterketa egin ahal izateko. >5 hutsegiterekin zuzenean BERRESKURAPENA egin beharko da.
  - b. Ikasle bakoitzaren esku geratzen da hutsegiteen kontua eramatea. Ez da hutsegiteen gaineko abisurik emango.
  - c. Puntueltasuna: irakaslea izango da klasean azkena sartzen. Berandu iritea hutsegite erdi gisa konputatuko da.
  - d. Lana: denboraren probetxua, materiala ekartzea, ariketak ganoraz eta txukun egitea, etxeko lanak egitea...
  - e. Lanak epe barruan entregatzea: epez kanpo entregatzen diren lanak ez dira jasoko, pisuzko justifikaziorik ezean.
5. Hezkidetza: ikaskideekiko eta irakaslearekiko errespetua.

## 6. KALIFIKAZIO-SISTEMA

### HIRUHILEKO BAKOITZAREN KALIFIKAZIOA

Hiruhileko bakoitza gainditzeko, **hiruhileko osoaren batez besteko orokorra gainditu behar da** (10 puntutik 5).

### BERRESKURAPENAK

Ikasgai jarraia izanik, ebaluazio bakoitzean **ez da berreskurapeneko azterketarik egongo**. Edukien eta kompetentzien atala jarraia denez, ikasturteko batez besteko nota 5era iristen ez bada, ohiko deialdian **IKASTURTE OSOKO AZTERKETA** egin beharko da.

## IKASTURTEKO AMAIERAKO KALIFIKAZIOA

Ikasturte amaierako kalifikazioa honela eraikitzea aurreikusten da:

IKASTURTEKO KALIFIKAZIOA		
EBALUAZIOA	EBALUAZIOA BALIOA%	EBALUAZIO BAKOITZEKO ATALEN BALIOA
1. Ebaluazioa	<b>% 20</b>	Kontrola (% 40) + Azterketa ( % 50) + Jarrera (% 10)
2. Ebaluazioa	<b>% 30</b>	Taldearen arabera: <b>A) AUKERA:</b> Kontrola (% 40) + Azterketa ( % 50) + Jarrera (% 10)
		<b>B) AUKERA:</b> Kontrola ( % 24) + Azterketa ( % 50) + Irakurrixu (% 16) + Jarrera (% 10)
3. Ebaluazioa	<b>% 50</b>	Taldearen arabera: <b>A) AUKERA:</b> Kontrola (% 40) + Azterketa ( % 50) + Jarrera (% 10)
		<b>B) AUKERA:</b> Kontrola ( % 30) + Azterketa ( % 50) + Irakurrixu (% 10) + Jarrera (% 10)

Urteko batezbestekoa 5era iristen ez bada, ikasleak ohiko azterketa egin behar du.

## OHIKO DEIALDIAREN KALIFIKAZIOA

Ohiko azterketan, ikasturte osoan zehar landutako edukiak eta kompetentziak baloratuko dira.

Azterketa horren **balioa % 90ekoa izango da, eta gainerako % 10a, jarreraren batezbestekoarekin osatuko da (hiruhileko bakoitzaren balioan oinarritutako batezbestekoa).**

## EZ-OHIKO DEIALDIA

Ez-ohiko deialdian azterketa bakarraren bitartez gainditzeko aukera egongo da, ohiko deialdiaren prozedura berari jarraituz. Azterketa horren **balioa % 90ekoa izango da, eta gainerako % 10a, jarreraren batezbestekoarekin osatuko da (hiruhileko bakoitzaren balioan oinarritutako batezbestekoa).**

## NOTA IGOERAK

Ikasturteko nota hobetzeko hainbat aukera egongo dira:

### > Ebaluazioko azterketako ariketa gehigarriaren bitartez

Ebaluazioko azterketan, proba horretako kalifikazioa gehienez 0,5 puntu igotzeko aukera egongo da ariketa gehigarri(ar)en bitartez.

### > Hautazko irakurgaiaren kontrolaren bitartez

1. eta 2. hiru hilekoen ondoren, **irakurgai baten inguruko azterketa gainditu behar da**. Hiruhileko bakoitzean, ebaluazio horren emaitzari, dena delakoari, asko jota, **1 puntu** gehitu dakioke. Azterketa horiek test erakoak izango dira, eta gainditzeko, **20 galderatik 16 erantzun zuzen** behar izango dira (16 erantzun zuzen + 0,2 / 17 erantzun zuzen + 0,4 / 18 erantzun zuzen + 0,6 / 19 erantzun zuzen + 0,8 / 20 erantzun zuzen + 1p).

Ohiko emaitza hobetzeko ere, irakurgai baten inguruko kontrola egiteko aukera egongo da; **betiere, ikasgaia gaindituta badago**. Kasu horretan, ikasturte osoko emaitzari **0,5 puntu** gehitu dakioke gehienez.

Azterketa hori ere test erakoak izango da, eta gainditzeko, **20 galderatik 16 erantzun zuzen** behar izango dira (16 erantzun zuzen + 0,1 / 17 erantzun zuzen + 0,2 / 18 erantzun zuzen + 0,3 / 19 erantzun zuzen + 0,4 / 20 erantzun zuzen + 0,5).

Irakurgaiaren kontrola egin ahal izateko, aurretiaz bidalitako inprimakian izena eman beharko da epemugaren barruan.

Honako hauek dira **irakur daitezkeen** liburuak:

- **1. ebaluazioan** → **Ez erran inori**, Maddi Ane Txoperena Iribarren (Elkar)
- **2. ebaluazioan** → **Bat, bi, Manchester**, Irati Jimenez Uriarte (Elkar)
- **Ohikoan** → **Aitarene etxea**, Karmele Jaio Eiguren (Elkar) // **Izotz ura**, Lide Hernando Muñoz (Susa)

### > Ohiko deialdiko urte osoko azterketaren bidez.

Nahi duen ikasleak ohiko azterketa egiteko aukera izango du. Kasu horretan, ohiko deialdiaren kalifikazioa eraikitze modua hartuko da kontuan (ikus "OHIKO DEIALDIAREN KALIFIKAZIOA" atala).



### > Euskararekin eta euskalgintzarekin loturiko ekintzak

Ikastolan zein ikastolaz kanpo sortzen diren euskalgintzarekin lotutako ekintzetan parte hartuta, ikasgaiaren urteko nota hobe daiteke. Kurtso osoko notari, asko jota, **0,5** gehitu dakioko (**ekintza bakoitzagatik 0,1**). Parte-hartzearen **froga grafikoak eta horri loturiko ariketa** aurkeztu beharko dira.

**Ekintza posibleak:** ateneoak, Gau Beltza, Durangoko Azoka, Korrika, Julene Azpeitia, Hitzez eta Ahotsez, aurkezpenak, antzerkiak, hitzaldiak... (zalantzaren aurrean irakaslearekin kontsultatu).

Puntuazioa gehitu ahal izateko, urteko batezbestekoa gaindituta izan behar da.

Hau guztia kontuan hartuta, ikasturtean zehar, gehienez, **2 puntu gehigarri** lortzeko aukera egongo da.

### HAZIAK > JARRERA PARTE-HARTZAILEA BULTZATZEKO SISTEMA

Ikasleak bere ibilbide akademikoa indartzen joateko jarrera bultzatzeko sistema da haziena. Helburua da ikasleek urtean zehar ikastolatik bertatik antolatutako zein kanpoko ekintzetan parte hartzea bultzatzea, bere ikasketa prozesua aberasteko balio duten esperientziak biltzen joateko.

Hitzaldi, debate edo mahai inguruetara joanez, erakusketak bisitatzuz, antzerki edo dantza emanaldietara agertuz, solasaldi zientifikoetan parte hartuz.... edo, oro har, ikaslearen irteera perfila aberastu dezaketen edozein hitzordu baliatzera bultzatzeko sistema da, beraz.

Horrez gain, jarrera parte hartzaile honek eragina izan dezake ikasturteko emaitzetan. Ikasturtean zehar, ekintza hauetan parte hartu izana erakutsiz gero, hainbat ikasgaitako notak hobetzen joan daiteke.

Horretarako ikasleak, txantilo/zeregin berezia bete eta entregatu beharko du:

- Ebaluazio bakoitzeko, gehienez 4 ekintza aurkeztu daitezke hainbat ikasgaitan banatuta.
- Gehienez ere, ikasgai bakoitzaren barruan 2 ekintza aurkeztu ahal izango dira ikasturtean zehar.
- Gehienez ere, 10 ekintza aurkeztu ahal izango dira ikasturtean zehar.

Hazien bitartez lortutako nota igoerak ebaluazio amaieran aplikatuko dira, ikaslearen ikasgaiko batezbesteko orokorra kalkulatu ondoren (eta beti ere, ebaluazioa gaindituta dagoenean).

Aurkeztutako ekintzen bitartez, ikasleak bere batezbesteko orokorra 1 punturaino hobetu ahal izango du, ikasgaiaren arabera, horretarako dagokion ebaluazioan behar besteko pisua hartuz.